

Elgoibarrek omenaldia eskainiko dio Gotzon Garateri, haren heriotzaren urteurrenean

Eguenean oroitarria bistaratuko dute euskaltzalearen jaiotetxean

Elgoibarko herriaren omenaldia jaso-ko du Gotzon Garate idazle euskaltzaleak, haren heriotzaren urteurrenean. Garateri eskerrak emateko eta haren lana gogora ekartzeko, egitarau zabal antolatu du Elgoibarko Izarra kultur elkarteak Udalarekin elkarlanean, *Gotzon akorduan hartuta* lelopean.

Ekitaldiak heriotzaren lehen urteurren egunean hasiko dira, urriaren 8an. Egun horretan, Gotzonen jaiotetxean oroitarria bistaratuko dute, San Bartolome kalean. Hurrengo egunean, berriz, kantu kalejira izango da Kultur Etxetik Madalara bitartean. Horrez gain, Kultur Etxean hiru hitzaldi izango dira, hainbat idazle eta euskaltzale esanguratsuk eskainita; Musika Eskolako auditorioan, berriz, *Mende baten aldarria* ikuskizuna. Astekari honek ere gehigarri berezia emango du argitara urriaren 16an.

Senideak aurkezpenean

Omenaldiaren inguruko nondik norakoak astelehenean aurkeztu zituzten. Bertan izan ziren Udaleko, Elgoibarko Izarrako eta omenaldia antolatzeko herri-batzordeko ordezkariak. Horiez gain, Garateren senideak ere han izan ziren. Haien izenean Jenaro Garatek hitz egin zuen. Aurten anaia Inazio ere hil zaiela adierazi zuen. “Caracasen dugun anaia Jose Luis, infartuak jota dago. Beraz, guk, Gotzonen anaia-arrebok heriotza begien aurrean darabilgu, baina fededunak garenez, haren heriotzak eman digu poza gehiago, mina baino, izan zelako beti maite-jardunean ibilitakoa. Eta gizon, langile, kristau eta jesuita apaiz garatuta hil zen”, esan zuen Jenarok. “Gure partetik, ahalegina egingo dugu gure Gotzonekin bat egiteko eguna ahalik eta gehien atzeratzeko”, gaineratu zuen.

Jenaroren esanetan, familiakoak pozik daude askok eta askok goraiatu dutelako Gotzonen lana. Horrek erakutsi die anaiaren lana garrantzitsua izan dela.

Omenaldiak herriarena izan behar duela nabarmendu zuen Jon Peli Uriguen



Aste honetan aurkeztu dute ‘Gotzon akorduan hartuta’ omenaldia.

euskara zinegotziak aurkezpenean. Azken batean, herritarrez osatutako batzorde batek lanean jardun du omenaldia gauzatzeko.

Euskaltzaletasunari eutsi

Ander Soraluze Elgoibarko Izarra kultur elkarteko presidentearen esanetan, Euskal Herri euskalduna gauzatzea da Garateri egin dakioken omenaldirik onena. “Gotzoni Elgoibarko euskaltzaleon esker ona azaltzeko modu bat da gaur aurkeztu dhardugun omenaldia. Lan izugarria egin zuen euskararen alde, eta merezi ditu gaurkoa eta orain arte jaso dituen omenaldi guztiak”, adierazi zuen Soraluzek. “Omenaldiak politak eta beharrezkoak badira ere, Gotzoni egin diezaiogun erregalirik ederrena gure euskalduntasunari eustea da”.

Garateren euskaltzaletasunaren gainean jardun zuen. “12 urte zituenean piztu omen zitzaion Gotzoni euskaltzaletasunaren argia; Durangora ikastera joan eta azpeitiar bat ezagutu zuenean, hain zuzen ere. Orditik, euskararen alde ahal zuen guztia egitea izan zen bere bizitzako zereginetako bat”, azaldu zuen. Bederatzi hiz-

kuntzatan berba egin arren, euskara zen bere hizkuntza. “Arriskuan ikusten zuelako egin zuen hainbeste lan euskararen alde”, gaineratu zuen.

Omenaldiko ekitaldiei buruzko informazio zehatzagoa, 24. orrialdean.



Gotzon Garate zena.